



### JOSEBE ITURRIOZ

Biolentziarik gabeko aroan omen gaude;  
ez denentzat, ordea.

| ARITZ GALARRAGA |

Argazkia: Dani Blanco

## «Ez dago biolentzia matxistak baino gehiago hiltzen duenik»

Emakume bat elkarrizketatu dudan bakoitzean, beti galdetu izan diot emakumetasunagatik.

Noski, emakumeak espezie bat dira eta galde-tu behar zaie emakumetasunagatik; gizonez-koei berdin galdetzen zaien bezala beren gizontasunagatik. Pena da Laura Mintegik lehendakarigai emakumea izateari garrantzi-rik eman ez izana.

**Hara, emakume izateagatik bozkatu behar genuen Laura Mintegi!**

Ez derrigor, Obama beltza zelako bozkatu ez zuten moduan. Baina balio inportantea du; gauzak normal, lehendakarigaiak gizonezkoa izan behar baitu.

**Zure kasuan justifikatuta dago emakumetasunaz galdetzea, berdintasun teknikaria zara. Lanbidea justifikatzeko eskatuko dizu orain batek.**

Diru publikoa ezberdin banatzen den bitartean, gizonezkoek baliabide gehiago jasotzen dituzten bitartean, ezin justifikatuago dago.

**Baina feminista erradikala izan daiteke berdintasun teknikaria? Ez luke izan behar diferentziarena?**

Feministak oro har gara deabruak. Sistema androzentriko matxista misoginoa ez zaio inori erradikala iruditzen. Fama txarra jartzen zaio pentsamendu kritikari. Eta jendarte berdinzale, libre, justuagoa izateko eraldaketa errotik eman behar da.

Tragikoena da emakumeaz hitz egiten dugunean beti biolentziaz hitz egin behar izatea.



Biolentzia estrukturala da, jaiotzetik subordinazio egoeran dago emakumea. Ez dago biolentzia matxistak baino gehiago hiltzen duenik. Noizko lege antimatxista bat?

**Zail, botere sistema bat mantentzea bada helburua.**

Emakumeak toki batean mantendu behar dira, espazio pribatuan, etxekoandre, eskubide gabe. Oso modu efektiboan ezartzen da kontrola, beldurraren bitartez.

**Badago pentsatzen duenik emakumearen kontrako benetako biolentzia prostituzioa dela.**

Prostituzioari bukaera emateko ezkontzari bukaera eman behar zaio lehen. Kontua da emakumeak sexualitatearekin botere eremu bat duela. Eta lagun prostitutek irakatsi didate unibertsitateak baino gehiago.

**Amaia Montero gisako feminista batek esana: batzuetan emakumeek ezetz esaten dutenean, gizonak noraino iritsi nahi duen ikusi besterik ez dute nahi.**

Munduko bortxatzaileak Amaia Monteroren-gana, ezetz esaten duen bakoitzean baietz esaten ari baita!

**Baxuago, ETBn entzungo dizute eta.**

19 urtetatik daramat lanean kalean. Telebistan behin atera eta mundu guztiak ikusten zaitu. Alde iluna ere badu; baina politikari eta jendarte aldatetari garrantzi handiegia ematen diot *celebrity* bilakatzeko. ■

